

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Vitoria-Gasteizko Salburuko Santo Tomás 9. sektoreko RU-L4 etxadiaren xehetasun-azterketari

Hau erabaki zuen udalbatzak 2020ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkuran:

Behin betiko onespena ematea Vitoria-Gasteizko Salburuko Santo Tomás 9. sektoreko RU-L4 etxadiaren xehetasun-azterketari.

Erabaki-proposamena

Tokiko Gobernu Batzarrek 2020 ekainaren 19an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion Vitoria-Gasteizko Salburuko Santo Tomás 9. sektoreko RU. L 4. etxadiaren xehetasun-azterketari – Mountain Real Estate, SL-k aurkeztua–, 2020ko maiatzaren 15ean erregistratutako proiektuekin bat. Halaber, URA Uraren Euskal Agentziara igorri zen, urari buruzko nahitaezko txostena egin zezan (ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 7. artikuluko K letran xedatua).

Erabakia 2020ko uztailaren 8ko ALHAOn (76. zk) eta 2020ko ekainaren 30eko El Correo egunkarian (Arabako edizioan) argitaratu zen. Xehetasun-azterketari buruzko dokumentazioa hogei egunez jendaurrean jarri zelarik, interesdunek ez dute inolako alegaziorik aurkeztu epe horretan.

Xehetasun-azterketaren xedea da Santo Tomas 9. sektoreko RUL4 etxadiko lerrokadurak eta sestrak osatu eta egokitzea, eta bolumenak antolatzea. Lurzatiak 4 azpietxaditan biltzen ditu (A1, A2, A3 eta A4, planoetan adierazita), eraikuntza-mota desberdinak aplikatzeko; A3 eta A4 azpietxadietan “dentsitate txikiko bizitegi kolektiboa”, Vitoria-Gasteizko HAPOko OR-7aren arabera, eta A1 eta A2 azpietxadietan, plan partzialeko konponbide “mota” mantentzea, “familia bakarreko ilarako bizitegia” OR-8 ordenantzaren arabera (plan partzialak berak baimentzen du).

URA Uraren Euskal Agentziak aldeko txostena egin zuen 2020ko uztailaren 15ean, eta honakoak adierazi zituen bertan:

.... lurpeko urei eragitea saihesteko, bermatu egin beharko da sotoaren estankotasuna, ur handiak direnean ere, sotoaren barrutik ponpatzeak egin beharrik ez izateko. Halaber, jakinarazi egiten du ezin dela baimendu drainatzeko gailurik instalatzea estradosean, hau da, sotoko hormetatik kanpoko.

2020ko abuztuaren 26an, Santo Tomas 9. sektoreko RU. L 4. etxadiaren xehetasun-azterketari behin betiko onespena ematearen aldeko txostena egin zuen Vitoria-Gasteizko udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak.

Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren arabera, xehetasun-azterketek antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatu edo egokitzea dute helburu, edozein dela lurzoru mota.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 74. artikuluan adierazten da xehetasun-azterketen edukiak zein agiritan formalizatu behar den, eta prozedura berriz, 2/2006 Legearen 74 artikuluan aurreikusia izango da, 46/2020 Dekretuaren 33.1 artikulua arabera.

Aipatutako 98. artikulua xedatutakoaren arabera, behin-behineko onetsi ondoren, xehetasun-azterketak jendarean jarriko dira hogeit egunez, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, nahi duen orok izan dezan aztertzerik, baita alegazioak aurkezterik ere.

Vitoria-Gasteizko HAPOn II. tituluko ("Plan Orokorren Garapena") 2. kapituluaren arautzen dira "Planeamendu Tresnak" eta 1. ataleko 3. atalean ezartzen dira xehetasun-azterketek bete beharrekoak: 2.02.06 artikuluan horien helburua eta edukia zehazten da, eta 2.02.07 artikuluan zehaztapenak eta jaso beharreko agiriak.

Urri buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikuluko K hizkiak xedatzen duenaren arabera, uraren euskal agentziari dagokio hirigintza-plangintzari buruzko txosten loteslea ematea, hasierako onespena jaso ondoren.

46/2020 Dekretuko 37.5 artikuluari jarraiki, hiru hilabeteko epea dago interesdun batek formulatutako xehetasun-azterketa behin betiko onesteko, hasierako onespena jasotzen duenetik kontatuta.

Udalbatzari dagokio hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako antolamendu-tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespena ematea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 123.1.i artikuluan — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak erantsia — xedatutakoaren ildotik.

Proposatzen den antolamendu aldakuntzarekin bat etorritik, dosieraren parte diren hirigintzako agiriak haren beharra eta egiteko egokiera justifikatzen baitute, Toki Jaurbidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legearen 122.4.a) artikuluan — abenduaren 16ko Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak gehitua — aitortzen dion aginpidea baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau aurkezten dio Udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onestea Santo Tomas 9. sektoreko RU. L.4 etxadiaren xedapen-azterketa, zein Mountain View Real Estate S. L. k 2020ko maiatzaren 15ean aurkeztu baitu.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 6an

Alkate lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE





